




LIBURUA

Anormaltasuna



CHRISPOLAND.COM

JENDE NORMALA

EGILEA: SALLY ROONEY

ITZULTZAILEA:

IRENE ALDASORO

ALBERDANIA, 2020

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

300 orrialde pasatxoko liburua hartu eta alfergura eman dit, zin dagit. Denboraz estu nabil azkenaldian eta gustuko izango dudak ez dakidan liburu luze bat hartzeak nagia eman dit. Hala ere, azal erakargarria dauka, kolore deigarriak ditu eta badirudi liburua deika ari zaidala.

Liburua irakurtzen hasi eta azkar harrapatu naute aurreiritziek: gazteagoentzat izango da agian? Institutu garaiko liburuak irakurriko ote dut bada? Nik istorio hau irakurria dut jada... Horrelako pentsamenduek hartu dute nire burmuina eta nago, zuotako batzuei ere gerta dakizukeela. Hala ere, bi eserialdi nahikoa izan ditut liburuak irakurtzeko, jateko.

2011ko urtarriletik 2015eko otsaile-rainoko tartea kontatzen digu liburuak. Bi daten artean denbora-salto handiak

nabarituko ditugu eta denboraren joanarekin batera protagonisten bizimodu aldaketak ikusten joango gara. Marianne eta Conell dira orriok beteko dituzten pertsonaiak. Hazten ikusiko ditugu. Nola hazi ginen gogoratuko dugu eta beraiekin haziko gara. Irakurle gisa gauza berezi bat gertatu zait: azkenengo orrialdeetara iristean ahaztu egin zait liburu hasieran institutu garaian zeudela. Hau da, liburuak, pertsonaiek, eraman egin naute. Orainera eraman naute. Irakurle gisa gertatu zaidanak eman dio kritikariari pista: denboraren joana adierazteko kontatzen dizkigun pasarteak proposak dira.

Marianne, Conell eta beste guztiak oso jende normala dira. Eguneroko gauzak egiten dituzte: esnatu, dutxatu, kafea berotu, larrutan egin, eskolara edo uni-bertsitatara joan, edan, lagunekin egin,

haserretu... Baina liburuak aurrera egin ahala bakoitzaren anormaltasunak ikusiko ditugu: zalantzak, komunikatzeko zailtasunak, erabakiak hartzeko ausardia falta, beldurak eta norbere lotsak. Anormaltasun horrek egiten ditu pertsonaiak erreal eta haragizko. Barne mundu zabal eta sakona dutela garbi dago.

Normaltasunez bizi den jende anormalaren kontakizuna da. Hari horri tiraka kontatzen zaizkigu hainbat eta hainbat azpigai, tramaren garapenean garrantzirik izan ez arren karga ematen diotenak. Bortitza, gogorra, sakona da, baina arintasunez, maitasunez eta goxotasunez idatzia; helduak eta normalak izan nahi duten pertsonaien ahotik. Denok bezala, haurrak eta anormalak direnen eskutik.

Euskarara bikain ekarria Irene Aldasoren luman. ●